

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

JUBIZIRIK negozio ideia aurrera ateratzeko, hainbat elementu beharrezkoak dira zeinak hiru talde nagusitan sailka ditzakegun.

1. BALIABIDE FISIKOAK

Ekintza guztiak koordinatu eta antolatu ahal izateko ordenagailuak edo antzeko **gailu elektronikoak** beharrezkoak izango ditugu. Hoberena, gutako bakoitzak ordenagailu propioa izatea izango litzateke, hortaz, guztira lau izango ziren. Horretaz gain, **telefono zenbaki** (690 35 28 83) bat kontratatuko dugu, zeina erosiko ditugun lau mugikorretan ipiniko dugu laurok bezeroekin harremanak mantendu ahal izateko.

Gainera, udalei **bulego** edota gela bat eskatuko diegu bertan bezeroekin bildu ahal izateko, udaleko ordezkariekin, informazioa bezeroei helarazteko eta abar. Guretzako ez dauka zentzurik leku finko bat alokatzeak, azkenean hainbat lekutan bezeroak izango ditugulako, eta haiekin harremanak errazteko haien herriko udaletara edota egoitza publiko ezberdinetara hurbiltzea egokiena izango litzateke.


Onartu beharra dago, ekintzaren arabera materialak alokatuko ditugula, baina ez dira gure jabetzakoak izango, behintzat hasiera batean.

2. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE INTELEKTUALAK

Gutariko bakoitzak ezaugarri apropos batzuk ditu enpresa honek funtziona dezan. Horiek aurreko atal batean aipatu genituen, baina berriz ere aipatuko ditugu, eta hurrengoak dira:


-LAIA MARTÍN DE PABLO: giza baliabideak

Berak soziologia ikasiko du, zeina oso baliagarria izango den bezeroekin **harreman zuzena** izateko. Laiak, adinekoen beharrak oso ondo ezagutzen ditu, baita Uribe Kostako gazteenak ere; eta oso ondo **erlazionatzen** da haiekin, oso enpatikoa baita. Gainera, Laiak **ingeleseko** eta **euskerako** agiriak ditu, hortaz, bezeroek nahi duten hizkuntza erabili ahal izango dute berarekin.




-PAULA FERNÁNDEZ GARCÍA: marketin eta telekomunikazioak

Bere antolatzeko ahalmena erabiliz, ekintzak eta bezeroak **koordinatuko** ditu. Hainbat gauza aldi berean koordinatzeko gai da, eta gainera oso **perfekzionista** da. Horrez gain, **publizitate** kanpainak eta jardueren **bideoak** egiteaz arduratuko da, ikusentzunezko komunikazioa ikasketak egiteko ideia duelako.



-MAIALEN GARAIZAR INCHAURTIETA: harreman zuzena bezeroekin

Monitoretza ikastaroa egin duenez, eta magisteritzan interes handia duenez, bertan ikasitakoa erabiliko du, eta antolatutako ekintzak praktikan jarriko ditu. Jendeari **laguntzeko** gaitasun handia baitu. Ekintzak praktikara jartzeko momentuan berak bideratuko ditu.



-YAIZA FERRO BEDIALAUNETA: fiskalitatea

Finantza eta legezko kontuez arduratuko da, arlo **juridikoan** oso interesatua dagoelako eta zuzenbidea ikasteko asmoa duelako. Aldi berean, beste enpresa aliatuekin kontaktuan jarriko da **finantziario iturriak** lortzeko eta dena modu legal batean egiteko.








Bakoitzaren ezaugarriak batuz oso talde aberatsa egiten dugu, baten gabeziak besteen indarguneekin konpentsatzen baititugu, horretaz gain laurok hurrendo ezaugarriak ditugu: enpatia, antolakuntza eta sormena.

JUBIZIRIKek **webgune** (<https://jubizirik-1.jimdosite.com/>) bat izango du, non gure informazio guztia eskuragarri egongo den eta gure ekintzen berri emango dugun. Horretaz gain, datu-base pribatu bat izango dugu, bezeroen datu pertsonalak eta berezitasunak gordetzeko, eta modu honetan, eskaintzen dizkiegun zerbitzuak pertsonalizatuagoak izateko.

3. FINANTZA BALIABIDEAK

Hasiera batean, gutako bakoitzak gure aurrezkietatik ateratako 1000 € jarriko ditu enpresa gauzatzeko. Hala ere denbora pasa ahala, gure ideia subentzioak eta udalek edota enpresa pribatuek jaulkitutako diru laguntzei esker haztea da. Jakin dugu Eusko Jaurlaritzak 3. adinekoentzat zerbitzuak eskaintzeagatik aipatutako subentzioak eskaintzen dituela eta horiek eskatzea da gure helburua.

<p>BALIABIDE FISIKOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lau ordenagailu  - Mugikorrak 
<p>GIZA BALIABIDEAK eta BALIABIDE INTELEKTUALAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Enpatia - Antolakuntza - Sormena - Ezagutza finantzarioak - Webguna  - Datu-basea 
<p>BALIABIDE FINANTZARIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrezkiak  - Subentzioak